

SENSIBILIZACIÓN SOBRE SALUD Y GÉNERO

Ikastaroan ikusiko dugunez, generoa erabakigarria da osasunean, bai pertsonen bizi-baldintzetan desberdinkeriak eragiten dituelako, bai genero-joera androzentristek medikuntzari eta osasun-arretari buruz ditugun ezagutzetan eragiten dutelako.

Generoaren eta aniztasunaren ikuspegia osasunean aplikatzeko oinarritzko urratsak aurkeztuko ditugu.

IRAUPENA ETA DATAK

4 aste

Gaztelania. Irailaren
2tik 30era

HELBURUAK

- Osasunaren alorreko emaitzak sexuarekin, genero-arauekin, rolekkin, harremanekin eta osasunaren beste faktore erabakigarri batzuekin lotuta daudela jakitea eta horren kontzientzia areagotzea.
- Begirada kritikoa ematea, osasun- eta gaixotasun-prozesuetan generoagatik sortzen diren desberdinkeriak ikusarazi eta zuzentzeko.
- Generoan oinarrituta osasun-arloa bidezkoa ez izatea eragiten duten faktore biologikoak, sozioekonomikoak eta norberaren nahiz inguruneko bizi-baldintzak aztertu eta aintzat hartzea.
- Generoa aztertzeko eta analisi hori osasun publikoko testuinguru batean aplikatzeko hainbat trebetasun analitiko eraikitzen hastea.
- Genero-ikuspegiaren onurak ulertzea, osasun-arloko ekitate ezak benetan murrizteari dagokionez.

MATRIKULA

Irekita, alde zuzenetik
eskakizunik gabe.

Egiaztatutako 10
prestakuntza-ordu



SENSIBILIZACIÓN SOBRE SALUD Y GÉNERO

UNITATE DIDAKTIKOAK

1. modulua

Genero-ikuspegia osasunean ulertzeko eta txertatzeko funtsezko kontzeptuak.

2. modulua.

Genero-joerak.

3. modulua.

Osasunaren azterketan genero-ikuspegia ez sartzearen ondorioak.

4. modulua.

Gomendioak eta jarduera onak.

IRAKASLEAK

Amaia Bacigalupe, Soziologian Lizentziatua (UPV/EHU), Politika Publiko eta Sozialetan Masterra (UPF) eta Osasun Publikoan Doktorea (UAB). UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko Irakasle Titularra da. OPIK-Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldeko Ikertzaile Nagusia da.


Marta Jiménez, Medikuntzan lizentziatua (uam), Lehen Mailako Arretan espezialista (familia eta komunitateko medikuntza). Giza Eskubideen Masterra (UAM) eta Osasun Publikoan Graduondokoa. UPV/EHUko Osasun Publikoko Doktoretza programako ikaslea. Opik eta BioCruces Bizkaia ikerketa taldeko kidea.

Xabi Martínez, Farmazia Gradua (UPV/EHU) eta Osasun Publikoko Masterra (UPV/EHU). Gaur egun, OPIK-Osasunaren Gizarte-Baldintzatzaile eta Aldaketa Demografikoari Buruzko Ikerketa Taldeko kidea

IKASTAROAREN MODALITATEA ETA BALDINTZAK

Autoprestakuntza. Ikastaro hau ikasleek modu autodidaktikoan ikas dezaten diseinatuta dago. Ikastaroak hainbat material teoriko eta aprobetxamendu-proba izango ditu, irakasleek parte hartu gabe.

Proba horiek gainditu ondoren, egiaztagiria eskuratzen da.



IRAUPENA ETA DATAK

4 aste

Gaztelania. Irailaren
2tik 30era

MATRIKULA

Irekita, alde zuzeneko
eskakizunik gabe.

Egiaztatutako 10
prestakuntza-ordu

